

XIII. urtea - 148. zk. 2005eko apirila

> **GEU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

mariano ferrer

frankeo itundua 48/27

8/98+

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPER AUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko ixtorian
aldaketa nagusia biziko du aurten:
lokal berri bat eraikitzen doa
eta zure laguntza baitezpadakoa du.

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustengueren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64

-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330


Gure Lokala



nik
Ba





>GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNEN
ALDIZKARIA

GEU Elkartearen ekimenez
sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:

Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe:

945 22 21 53

e-mail:

geugaste@grn.es

Zuzendaria:

estitxu breñas glz. de zarate

Aldizkari batzordea:

josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estitxu breñas eta
david alvez

Kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite
lekue

Argazkiak:

edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa:

estitxu breñas glz. de zarate, david alvez

Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:

estitxu breñas glz. de zarate

Itzulpenak:

edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri

Maketa:

patirke sanz eta david alvez

Logoa:

io grafix

Komikia:

iñigo sarasola

Kolaboratzaileak ale honetan:

atea, lourdes oñederra, koldo ortiz de ginea,
erlantz urtasun, alfredo ibarra eta gamarrako
ostalaritza eskola.

Publizitatea eta Banaketa:

edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila:

edurne begiristain, estitxu breñas glz. de
zarate eta maite lekue

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92


ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Arabako
Foru Aldundia



EUSKO LEGBILTZARIAREN
KULTURA SAILA

GEU ALDIZKARIA zure

etxean jasotzeko bidea

HARPIDETZA da.

Urte osoko kuota: **18 euro.**

(telefonoz - e-mailez)

AHORIK-AHO



7-9

mariano ferrer.

18/98+

16-17

**dulce burutxaga. el
conquistador del fin del mundo**



10-11

estibaliz ruiz de azua.

etb-ko aurkezlea



13-15

iker romero.

**bartzelona
eskubaloitza**



GAIKA

18-20

**ikazkintza asparrenan.
juan ezkurra**



21

**euskaltasunean
lagun. izotz garcia**

22

arabako bertso txapelketa 05

23

diocesanas. III. Ipuin lehiaketa

24

xiba. euskal jokoak

HAN-HEMENKA

- iritzia (4)

atea

- kaleak dio (5)

inmigrazioa

- idazleen zutabea (5)

lourdes oñederra

KULTURAI SAILDIARI SO

- HISTORIA ZERTZELADAK (25)

koldo ortiz de ginea

- AGENDA (26-27)

- ARTE TXOKOA (28-29)

musika: the brontës

- BIDAIA (30)

egin bidaiak lasai

- ERREZETA (30)

legatz konfitatua

- ARABA BIXOTZIAN (31)

alfredo ibarra

- GEU elkarte & geurekin mendira 10 urte (32)

- korrika (33)

- KOMIKIA: tink (34)

iñigo sarasola

Azala ...

mariano ferrer. Analista politikoa, iritzi emailea, beti gaurkotasunari lotutako kazetaria. Irratiari agur esan zion duela hilabete batzuk, baina ez da isilik geratu. Mariano Ferrerek egoera politikoari hainbeste urtetan hainbeste buelta eman ondoren, jubilazioan ere horri eusten dio oraindik. Kasu honetan, gainera, gure herrian pil-pilean dagoen gai bati lotuta: 18/98 sumarioko kideen eskubideen defentsa aldarrikatzen dihardu 18/98+ lan taldearen barruan. Harekin plataformaren zereginaz mintzatu gara.



arg: argazki press

Harpidedunak | BEHAR | ditugu!

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

UMARIOA



Blusak eta zezenketak

♦♦ Mariasun Heras (ATEA)

Bazen garaia. Blusa eta Nesken Batzordeak iragarri du aurten ez duela uztailaren 25eko zezenketa jaia antolatuko, eta horren ordeztu pilotatutako antolatuko duela. Batzordekoek azaldu dutenez, zezen plaza kudeatzeko duen enpresarekin izandako gorabeheraz

Zezenketak ikuskizun krudela eta doilorra direla uste dugunok pentsatzen dugu hartutako erabakiak berresten duela sarraski publiko horren amaiera gertuago egon daitekeela. Era berean, gustatu litzaiguke erabaki horren oinarria animalia guztiek osotasun fisikorako eta tratu txarrak ez jasotzeko duten eskubidea egon izana. Geroak gero, dena dela. Guztia helduko da, berandu baino lehen. Gasteizko gizarteko sektore batek, kasu honetan blusek eta neskek, publikoki aitortzea zezenketazaleak ez direla garai batean zirenak, sarraski horri amaiera emateko itxaropen izpia dela uste dugu. Datorren urratsak honakoa behar du izan: Blusa eta Nesken Batzordeak argi eta garbi salatzea animalien aurka egiten diren torturak. Hasteko, asto lasterketa lotsagarria euren jai egitarautik kendu beharko lukete. Horretaz hausnartzeko proposatzen diegu.

Bukatzeko, poztan gaitu ikusteak borondatea dagoenean ez dela hain zaila zezenketak bezalako ohiturei alternatibak bilatzea. Mundua ez da amaituko gure ohiturak aldatzeagatik, horietako asko, gainera, zeharo lotsagarriak ustez aurrerakoia den gizarte baterako.

poztan gaitu ikusteak
borondatea
dagoenean ez dela
hain zaila zezenketak
bezalako ohiturei
alternatibak bilatzea

gainera, gazteek zezenketekiko duten interes falta izan da erabakia hartzeko funtzesko arrazoia. Animalien eskubideen defentsan aritzen garenoi Andre Maria Zuriaren jaietan ere jarrera berari eustea gustatuko litzaigukeen arren, begi onez ikusten dugu batzordeko presidentek esandakoa, alegia, blusa eta neska askok interesa galdu dutela ikuskizun horrekiko.

Inmigrazioa

Lagun ugarik euren herrietatik alde egin behar izan dute bizitza hobe eta duinago baten bila, kapitalismo eta inperialismoaren atzaparrek euren herrietako baliabideak xurgatu ostean. Hori dela bide, gero eta gehiago dira gure artean ditugun atzerritarrak. Gizartea etorri berri diren kultura, erlijio eta ohiturak errespetatu beharrean dago. Gaurkoan kalera irten gara gasteiztarrei errealitate honen inguruan duten iritzia jasotzera. Hauxe da bildutakoa:

- 1.-Aldaketa handia sumatu al duzu Gasteizen azken urteotan?
- 2.-Nola ikusten duzu inmigrazioa?
- 3.-Etorkinik ezagutzen al duzu?

Carlos Maleta, irakaslea

1) Nire ustez, Gasteizen leku zehatzetan dago zentratuta inmigrazioa. Nik, esaterako, bizi naizen lekuan ez dut nabaritu aldaketa handirik.

2) Gauza naturala da. Herrialde batzuetan pobrezia piloa baldin badago, jendeak alde egin behar du, nahitaez.

3) Ez, egia esan, oso gutxi ezagutzen ditut.



Beatriz Palacio Perez, ikaslea eta langilea

1) Bai, atzerritar asko etorri da azken boladan, auzoetan eta kalean nabaritzen da, batez ere.

2) Nik egoera ulertzen dut. Guda garaian euskaldun askok hemendik alde egin behar izan zuten eta orain alderantziz gertatzen ari da. Hori dela eta, ondo ikusten dut inmigrazioa.

3) Lanean batez ere, baina oso gutxi. Hauekiko dudak harremana normala da, besteekiko dudak berdina, alegia.



Maria Perez de Albeniz, aparejadorea

1) Bai, nik uste dut asko handitu dela azken urteotan. Gehienbat kalean nabaritzen da.

2) Niri ez zait gaizki iruditzen, betiere, jende langilea baldin bada. Nik, esaterako, eraikuntzan lan egiten dut eta bertan atzerritar askok lan egiten du. Hauei esker jende askok lan egiten du, etorkinek bertakoek egin nahi ez duten lana egiten baitute.

3) Bai, esan bezala, lana dela eta, etorkin asko ezagutzen ditut, dena den, harreman profesionalera mugatzen gara.



oharra. aurreko alean honako okerra egon zen:
david muhozen ordez jose maria arnal izena agertu behar zen, eta alderantziz



— m. i. oñederra

Osasun publikoa

Bazen behin emakume bat berrogei urteak pasa zituena. Emakume hark bakoitza, neurri batean, bere osasunaren erantzule dela pentsatzen zuen eta, nola prentsan medikuek dioten emakumeen zenbait minbizi garaiz harrapatzeak sendaketa asko errazten duela, urtero egiten zuen zintzo-zintzo ginekologi ikustaldia.

Halako batean baina, urteroko hitzordua eskatzeko deitzean, ezetz esan zioten Osakidetzakoek, ez ziotela hitzordurik emango, nahikoa zela bi urtean behin joatea, eta bla-bla-bla.

Orain bi urtean behin bakarrik joaten da ginekologialariagana. Laster gainera, alderdi burokratikoek hartu duten martxan, tramiteak betetzeko beharko ditu bisita batetik besterako tartearak.

Lehenengo, ordua hartzeko telefonoa kokatu behar da. Telefono horretan erantzutea ez da berehalakoa, edozein zerbitzutarako hitzordua eskatzeko telefono orokorra baita. Deia hartzen duenak ez dauka deitzen duenaren fitxa eskura eta deitzaileak bere bizitza kontatu behar dio. Lau hilabetera-edo emango diote hitzordua. Ordurako beste hitzordu bat eskatu beharko du, mediku orokorrarekin. Azkenean, anbulatorioko kontsultan haren papertxo bat lortuta, ikustaldia baino lehen ospitaleko harrera gunean zain egon beharko du, ordenagailuan jar dezaten zertara joan den. Beti berdin, bi urtean behin.

Zer egin? Prentsakoa sinetsi eta kezkatu? Medikuntza pribatura jo eta pobreagoei utzi gaixotasun arrisku handienak, telefono-dei sareak, hiru ate-aurretan zain egotea minututako ikustaldirako, mediku aldaketa abisu-gabeak?

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883 "GASTEIZ"

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Dalvez maketazioa
argitarazleak

Tel./Faxe: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net diseinua

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA

Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

MIKO

Izozkiak

bar·restaurant·
albéniz

Errege ateak, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
945 28 79 42 - GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 - GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74


MARIANO FERRER:

“Irtenbide bakarra
guztiok guztion
eskubideak eta
askatasunak
defendatzea da”

ANALISTA POLITIKOA, IRITZI EMAILEA, BETI GAURKOTASUNARI
LOTUTAKO KAZETARIA. IRRATIARI AGUR ESAN ZION DUELA HILABETE
BATZUK, BAINA EZ DA ISILIK GERATU. MARIANO FERREREK EGOERA
POLITIKOARI HAINBESTE URTETAN HAINBESTE BUELTA EMAN
ONDOREN, JUBILAZIOAN ERE HORRI EUSTEN DIO ORAINDIK. KASU
HONETAN, GAINERA, GURE HERRIAN PIL-PILEAN DAGOEN GAI BATI
LOTUTA: **18/98** SUMARIOKO KIDEEEN ESKUBIDEEN DEFENTSA
ALDARRIKATZEN DIHARDU **18/98+** LAN TALDEAREN BARRUAN.
HAREKIN PLATAFORMAREN ZEREGINAZ MINTZATU GARA.

edurne begiristain

arg: argazki press




ZER DELA ETA SORTU DUZUE 18/98+ LAN TALDEA?

Bizpahiru hilabete falta ziren makro sumarioaren lehen ahozko epaiketari hasiera emateko, eta kaleko giroa ezer gertatuko ez balitz bezala sumatzen genuen. Guk jakin bagenekien 200 lagunetik gora epaituak izango zirela, enpresak, hedabideak, erakundeak itxita zeudela, batzuk kartzelan zirela, beste batzuk epai larrien zain... eta hori guztia planteamendu politiko batean oinarrituta zegoen: *ETAk ezin du Zuzenbide Estatuaren jazarpena jasan, babestu eta elikatzen duen inguru bat ez badu. Hartara, ETari aurre egiteko, inguruko mundu horri ere aurre egin behar zaio.* Nik ez dut orain tesi hori eztabaidatzen hasiko, baina eskubidea izan, badut ustez ETakoa den inguru horri erasotu ahal izateko beharrezkoak diren frogak mahai gainean jar daitezen eskatzeko. Baina, pertsona eta talde horien aurkako ekintza judiziala abiatu denean argi geratu da leporatu egiten zaizkien gauza asko ustez demokratikoa beharko lukeen gizarte batean askatasunen egikaritza soila baino ez direla, alegia, adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea, antolatze, ideiak adierazteko askatasuna... Euskal Herriaren testuinguruan, ordea, ETaren helburuekin bat datozela esaten dute, eta ondorioz, ETari laguntzea leporatu egin zaie.

HARTARA, ZUEN USTETAN PERTSONA ETA TALDE HORIEI LEPORATZEN DIZKIETEN DELITUEK EZ DUTE INOLAKO OINARRIRIK.

Guk auziperatuta dauden pertsona horietako batzuk pertsonalki ezagutzen ditugu, eta ziur gaude inputazio horiek guztiak lotsagarriak eta faltsuak direla. Ezagutzen ez ditugun lagunen kasuan ohartarazi egin dugu inputazioak orokorrak direla, eta kasu gehienetan ez dagoela inolako froga indibidualizaturik, oro har, eskubide zibil eta politikoen egikaritzaz ari direlako. Horretaz gainera esan beharra dago prozesu hauek martxan jarri direnean nolabaiteko legislazio motorizatu bat abiatu dela, hau da, ahalik eta froga gutxien erabiliz ahalik eta pertsona gehien inputatzeko legeak gogortu eta aldatu egin dituztela. Eta gainera, epaileak



"guk argi ikusten genuen pertsona horien eskubide zibilak urratzeko arrisku larria zegoela"

legeak modu zabal eta lauso batean interpretatu egiten dituzte, edozein ekintza terrorismo ekintzantzat hartuz. Hori horrela, guk argi ikusten genuen pertsona horien eskubide zibilak urratzeko arrisku larria zegoela eta bestetik, prozesuak aurrera eramateko modua ikusita, berme judizialak ere urratzen ari zirela.

BERAZ, 18/98+ LAN TALDEAREN HELBURU NAGUSIA ESKUBIDE HORIEN URRAKETEN BERRI EMATEA LITZATEKE?

Bai, hala da. Ahalik eta gehien jakinarazi eta zabaltu nahi dugu zein den egoera, hau da, pertsona batzuen eskubideak urratzen ari direla larriki. Jende asko ez baita ohartzen esaterako gazte batzuk lau urte egon direla espetxean, epaiketarik eta haien kontrako inolako frogarik gabe... Beraz, nik uste moralki nolabaiteko autoritatea badugula mobilizatzeko eta kalera ateratzeko. Prozesua aurrera eramaten ari diren modua ere oso susmagarria iruditzen zaigu. Bermeak eskatzen ditugu, baina justiziari egiten diogun kritika hori eskubideen aldarrikapenaren ostean dator. Alegia, gizarte honetan sumario horien instrukzioak erakusten duen baino askatasun handiagoa behar du egon.

AZKEN BATEAN PROZESU HAUEK GUZTIEK GIZARTE OSOARI ERE ERAGITEN DIETE NEURRI BATEAN, GUZTION ESKUBIDE ETA ASKATASUNAK MUGATZEN



**"gizarte honetan
sufrimendu asko
dago, neurri handi
batean ETak
eraginda, eta bada
jazarpen mediatiko-
informatibo-kultural
bat ETarekin
zerikusia izan
dezakeen guztia
madarikatzen duena;
horregatik sortu
gara, desinformazio
horri ere aurre
egiteko"**

**"jende asko ez da
ohartzen esaterako
gazte batzuk lau
urte egon direla
espetxean,
epaiketarik eta haien
kontrako inolako
frogarik gabe..."**

ARI ZAIZKIGULAKO...

Bai, noski! Auziperatuta dauden pertsonen zerrendari erreparatuz gero, gutako edozeinek pentsa lezake: "Hara! neu ere izan nintekeen! Nik ere antzeko gauzak egin ditudakako, antzeko ideologia dudalako, inguru bertsuan mugitzen naizelako...!". Beraz, adi! gaur haiei egokitu zaie, baina zuri ere pasa dakizuke! **EUSKAL GIZARTEA, ORO HAR, GAI HAUEKIN SENTSIBILIZATUTA DAGOELA USTE DUZU? ESKUBIDEEN URRAKETEN AURREAN GAUDELA OHARTZEN GARA ALA KONTRAKOA IRIZTEN DIOGU?**

Ez da samurra guk egiten dugun irakurketarekin bat egitea. Azken batean herri honetako errealitatea onartu egin behar dugu: gizarte honetan sufrimendu asko dago, neurri handi batean ETak eraginda, eta bada jazarpen mediatiko-informatibo-kultural bat ETarekin zerikusia izan dezakeen guztia madarikatzen duena. Beraz, plataformaren helburuetako bat ere bada soilik batzuen eskubideak aldarrikatzera garamatzan muga hori haustea. Finean, gizarte honek duen irtenbide bakarra da guztiok bat egitea denon eskubideen eta askatasunen defentsan.

IRITZI ETA IDEOLOGIA ASKOTARIKO JENDEAK EGINDU BAT ZUEN ALDARRIKAPENEGIN?

Zorionez, bai. Egia da erantzun maila handiena auziperatuak dauden inguru kultural, sozial eta politikoko jendeak eman duela. Baina, horiekin zerikusirik ez duen jendearen partehartzea ere izan dugu... Hala ere, distantzia, errezelo eta aurreritzi dezente daudela argi dago. Eta bada jendea uste duena auziperatze hauekin arriskua eta mehatxua gutxitzen

ari dela, eta beraz onuragarria dela. Errealitatea horrelakoa da, eta hori onartu behar dugu.

EUSKAL GIZARTEAN ASKOTARIKO IRITZIAK DAUDE, BAINA ESPAINIAKO HERRITARRAK ASKOZ BELIGERANTEAGOAK DIRA GAI HAUEKIN, EZTA?

...Nire buruaren inguruan Madrilen diotena baino ez da ikusi behar!!... Ordaindu beharreko zerbait da, beste batzuk beste gauza batzuegatik ordaindu behar duten moduan... Bizitzan dena gehiegi sinplifikatzen dela uste dut, eta gauza batzuen inguruan dugun ezagutza oso mugatua dela: Zein da Espainian hemen gertatzen denaz dagoen bertsio bakarra? Eta epaiketa hauen inguruan? Lau urte daramatzate pertsona hauek susmagarritzat eta errunduntzat jotzen. Eta horregatik sortu gara, desinformazio horri ere aurre egiteko.

MANIFESTAZIO ERRALDOIA EGIN ZENUTEN OTSAILAREN 26AN AUZIPETUEI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO. BESTELAKO EKIMENIK BURUTUKO AL DUZUE 18/98+ LAN TALDEKOEK?

Manifestazioaz gainera, jardunaldi arras interesgarriak antolatu genituen Bilbon, Espainiako zuzenbide penala aztertzeke. Auziaren larritasuna aintzat hartuta, jendearen arreta deitzea lortu dugula uste dut, eta alde horretatik pozik gaude. Baina kontuan hartu behar da 18/98+ lan taldea sumario horien guztien aterkia dela, baina sumario bakoitzak askatasuna duela bere kasara jarduteko. Lan taldearen zeregina da guztiei eragiten dieten alorretan aritzea, eta egin egingo ditugu bestelako ekimenak.

ABIAN DAUDEN EPAIKETAK ETA ETORRIKO DIRENAK NOLA IKUSTEN DITUZU? ITXAROPENTSU ZAUDE?

Egia esan itxura ez da batere ona. Oso apustu gogorra egin dute gizarte sektore bat desegiteko, Espainiako Estatuari deseroso zaizkion ideia batzuekin bukatzeko. Hortaz, ez da espero esatea hanka sartu dutela, baina ez gara zertan justiziarekiko mesfidakor izan, batzuetan ezustekoak egoten baitira, eta justiziak gisa honetako auziei ere arrazoia ematen dielako. Ez naiz, halere, inozoa izango, ez naiz baikorra izango, baina ikusi beharko da...

ESTIBALIZ RUIZ DE AZUA: "Hitzak asko neurtu behar ditugu, inor mindu ez dadin"

edurne begiristain

arg: edorta sanz

EGUN EUSKAL TELEBISTAKO AURPEGI EZAGUNA DA ESTIBALIZ RUIZ DE AZUA. GEBARAN (ARABA) BIZI DA, BAINA JAIOTZEZ GASTEIZTARRA DEN 36 URTEKO EMAKUMEA DUGU. ETB2KO EGUERDIKO TELEBERRIKO ETA POLÍTICAMENTE INCORRECTO SAIOKO AURKEZLEA DA 2001AZ GEROZTIK. URTE HORRETAN EGIN ZION TELEBISTA KATEA HORRETAN LAN EGITEARI, BAINA KAZETARITZA MUNDUAN ESKARMENTU HANDIA DAUKA: 1992TIK 2001ERA SER IRRATI KATEAN ARITU BAITZEN ESATARI MODUAN. ALBISTEGIA PRESTATZEN HASI BAINO MINUTU BATZUK LEHENAGO HARRAPATU DUGU, ETA HONAKO GALDERAK EGIN DIZKIOGU.

NOLAKOAK IZAN ZIREN ZURE HASTAPENAK TELEBISTAREN MUNDUAN?

Kazetaritza ikasteketak egin ostean, irrartian hasi nintzen lanean, SER irrartian 9 urte eman nituen eta 2001. urtean ETBn etabaida saio bat egin behar zuten, eta hura aurkezteko eskaintza egin zidaten, irrartia utzi gabe. Políticamente Incorrecto 2001eko otsailean hasi genuen, eta ekaina bitartean egon nintzen saioa aurkezten. Uda partean Teleberria aurkezteko proposatu zidaten, eta orduan irrartia utzi behar izan nuen. Eta ordutik hona Teleberri eta Políticamente Incorrecto saioetako aurkezlea naiz.

ZER MODUZ DARAMAZU TEKEBISTAKO AURPEGI EZAGUNA IZATEARENA? KALEAN EZAGUTZEN AL ZAITUZTE?

Ez, ez pentsa... Oharkabea iganatzen naiz jendearen aurrean. Nik uste dezente aldatzen naizela telebistatik kalera. Gasteizen, batzuek ezagutzen naute, baina ongi daramat, oharkabea iganatzen naizelako, bai bederen hirian. **PENTSATZEKO DA INFORMATIBO BAT AURKEZTEA EZ DELA LAN SAMURRA IZANGO, ATZEAN LAN HANDIA EGONGO DELA....**

Bi pertsona gaude informatiboa

aurkezten, baina atzean jende askoren lana dago. Ez bakarrik erredakzioko jendearen lana, albisteak egin eta idazten dutenen lana, horietaz gainera alde teknikoan lan egiten dutenena... Azken batean kontua da ahalik eta hoberen aurkezteko atzean dagoen jendearen lana. Aurkezle lanari dagokionez, goizean goiz makillaje eta ileapaindegi saioa daukagu, eta gero informatiboa prestatzeko ekiten diogu. Edukia lantzen dugu, kontuan hartuta edozein unetan azken orduko zerbait gerta daitekeela, eta aurkeztu egiten dugu.

KAMARA BATEN AURREAN ATERATZERA OHITU AL ZARA?

Políticamente-ko lehen saioa egin arte ez nintzen sekula telebista batean atera. Telebista batean irudia asko zaindu behar da, baina beno... ez da bereziki zaila den gauza bat, kazetaritzaren beste zati bat da, besterik gabe.

EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOA KONTUAN HARTUTA, PENTSATZEKO DA ZENBAIT GAI TENTU HANDIZ ZAINDU BEHAR DITUZUELA.

Bai, noski. Gehienbat eztabaidak moderatzerakoan asko zaindu egin behar da hainbat gai joratzeko modua, gerta daitekeelako zure iritzia edo aburuak batzuen gustukoak ez izatea. Norbait mindu daiteke, edo gaizkiulertuak egon daitezke... eta beraz, hitzak asko neurtu egin behar dira, hori bai, betiere errealitatean oinarrituta, inor mindu ez dadin. Azken batean esandakoak batzuei edo besteei kalte egin diezaikeelako.

ORO HAR POLITIKAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK LANTZEN DITUZUE POLÍTICAMENTE INCORRECTO SAIOAN. ZUK USTE DUZU BIZI DUGUN GATAZKA POLITIKOAK ERAGITEN DUELA EUSKAL HERRITARREK GAI HORIEKIKO INTERES BEREZIA IZATEKO?

Audientziei erreparatuz gero, Políticamente saioak tartaren zati txiki bat baino ez du hartzen. Gurekin lehiatzen diren saioak indartsuak dira oso (Crónicas Marcianas eta abar), eta jendearen gehiengoak gisa horietako saioen alde egiten du hein handi batean. Baina, nik uste dut interesa izan badugula gai horiekiko. Dena dela, ulertzekoa da gaueko ordu horietan jendeak burua deskonektatu nahi izatea, eta bestelako programak ikusi nahi izatea.

NOLA DEFINITUKO ZENITUZKE EUSKAL HERRIKO IKUSENTZULEAK? IRIZPIEA DUGU? KRITIKOAK GARA? ESPAINIAKO HERRITARREKIKO ALDERIK SUMATZEN AL DUZU?

Nik uste antzekoak garela, azken



batean telebistatik futbol partida bat botatzen dutenean, partidak audientzia du bai Espainian bai Euskal Herrian. Gauza bera gertatzen da beste saio batzuekin ere. Irizpide antzekoa dugu euskaldunok eta espainarrek.

AURKEZLE EZ BAZINA, ZER?

Telebistan ez banengo, irratan nengoke. Eta irratan ez banengo, bada... ez dakit. Egia esan, kazetaritza sen amorratua duen horietakoa ere ez naiz izan sekula, eta ez dakit zertara dedikatuko nintza-tekeen, baina seguruenik kazetaritzarekin zerikusia duen zerbaitetara.

DI-DA

Ematea gustatuko litzaizukeen albistea?

Askok nahiko genukeena: ETaren su-etena.

Aurkezle moduan ahaztu nahiko zenukeen eguna?

la egunero daude albiste txarrak... baina ahazteko egunik ez dut gogoan.

Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?

...

ez dakit... izen-abizenik gabeko norbait. Elkarrizketa onena pertsona anonimo bati egindakoa dela uste dut.

Gustuko telebista saio bat?

'Cuéntame' gustuko nuen.

Aurkezle bat?

Julia Otero.

Musika gustukoena?

Oso galduta nago musikan... ez naiz oso zalea.

Liburu bat?

Isabel Allenderen baten bat, esaterako.

Hobekien prestatzen duzun platera?

Entsaladak.

Azken oporrak non?

Nafarroan.

Vaya Semanita-koek egiten dizuten parodia gustuko duzu?

Bai, kar kar!!

Hobbyrik?

Irakurtzea, eta gauzak inprobisatzea, ezer planifikatu gabe. Nire ametsetako eguna da deskansatzen egotea eta unean-unean erabakitzea zer egin.

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

al-aire
armazoa
95€-tan

eta eguzki-click
polarizatua opari

Nork esango zion Joni
click batekin bere al-aire betaurrekoak
eguzkitarako betaurreko bihurtuko zirela.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Zuriaren plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza horiek 05/03/01etik 05/04/30era arte izango dira indarrean

KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IKER ROMERO, Bartzelona eskubaloit taldeko jokalaria gasteiztarra

1980AN JAIOTAKO 100 KILOKO PISUA ETA 1,97 METRO ALTUERAKO GASTEIZTAR HONEN IBILBIDEA ARRAKASTATSUA IZAN DA ZORTZI URTEREKIN ESKUBALOIAN HASI ZENETIK. VALLADOLID, LEON, CIUDAD REAL ETA BARTZELONAKO TALDEETAN ARITU DA GAZTEA. AZKEN TALDEAREKIN, BARTZELONAREKIN ALEGIA, ESKURATU BERRI DU IKER ROMEROK JOKALARI BATEK IZAN DEZAKEEN GARAIPEN GARRANTZITSUENETAKOA, AURTENGO OTSAILEAN TUNEZEN IZANDAKO MUNDIALEAN URREA LORTZEA, HAIN ZUZEN. HALARIK ERE, GAZTEAK EZ DU ETEN BERE BURUA GAINDITZEKO ETA LANEAN JARRAITZEKO GRINA.

NOIZ JAKIN ZENUEN ESKUBALOIA GUSTUKO ZENUELA?

Zortzi urte nituenean nire anaia Aitor eskubaloian jokatzeko ikustera joaten nintzen. Orduan kirol honetan hasi nintzen Corazonistas ikastetxeko lagun taldearekin. Nire gurasoak eta nire familiak asko lagundu zidaten kirol honetan arreta jartzen. Nire aitonari, goian bego, bereziki asko zor diot, berak hezitu baininduen neurri batean. Izan ere, txikia nintzenean bala galdua nintzen; oraindik ere banaiz baina lehen askosaz gehiago, kar-kar. Zortea daukat hau gertatu izanagatik, baita kirol honetan une ona bizi izaten egoteagatik ere, nahiz eta beti nahi izan dudana oinak

lurrean izan.

ESKUBALOIKO JOKALARIA EZ BAZINA BASOZAINZTA EDO MEDIKUNTZA IKASIKO ZENUELA AIPATU DUZU ELKARRIZKETA BATEAN. IKUSIKO ZENUKE EGUN ZURE BURUA BI HORIETAKO LANBIDEREN BATEAN?

Medikua bainoago basozain nekusake, batez ere orratzei eta odolari beldur izugarria diedalako, je, je. Basozain, aldiz, gustura ariko nintzateke, ehizaren mundua izugarri gogoko dut-eta.

PROFESIOALETARA JAUZIA EMATEAK ETXETIK ATERATZERA ETA ESTATU ESPAINOLEKO HAINBAT HIRITATIK IBILTZERA BEHARTU ZINTUEN. HAMASEI URTEKO MUTIL BATENTZAT ZER EKARRI ZUEN HONEK?

Valladolid, León, Ciudad Real eta azkenik Bartzelonan bizi izan naiz. Lehendabiziko aldiz etxetik atera nintzen zaila izan zen, 16 urteko mutil batentzat bere lagun, hiri eta familiarengandik banatzea zaila baita beti...

BAINA ZURE IBILBIDEAN MEMENTO ONAK ERE IZAN DIRA, ETA ASKO GAINERA...

Eskubaloian boladakako kontua izan da. Lehenengo memento goxoa Ohorezko mailan jokatu nuenean izan zen; gero, tituluak irabazi nituen eta ondoren, irabazten jarraitu nuen Selektzio Absolutura iritsi arte. Olinpiadak etorri ziren gero, eta ostean, orain irabazi berri dugun mundiala. Halere, nire buruari helburuak jartzen jarraitzen dut. Izan ere, pentsatzen dut honaino heltzea zaila bada ere, are zailagoa dela egoera honetan mantentzea. **KIROL MAILARI DAGOKIONEZ GARAIAK DAUDELA AIPATU DUZU, BATEN BAT TXARRA?**

Bai noski, lesioak. Belaun berean hiru izan ditut orain arte eta mementoz irauten dit gaixoak (barre egiten du). Partidak galtzea txarra da baina lesioak izatearekin ez dauka alderik.



ZEIN BIDETATIK JARRAITUKO DUZU ORAIN?

Irabazten eta hobetzen jarraitzea dira nire helmugak. Lehen esan bezala, behin edo bitan irabaztea erraza da baina mantentzea ez da hainbeste. Lanean jarraitu nahi dut kirol honetan, ahal diren urte gehienak egon ahal nadin.

AMETSİK BAI?

Bai, eskubaloian bukatzen dudanean, goizetan esnatzea eta gaizki ez nuela egin esan ahal izatea. Jokalari ona izan nintzela jakitea.

ibilbidea:

- ✓ Asobal Liga: jokalari onena hainbatetan (1999-2000/2000-2001/2001-2002)
- ✓ Espainiako Selektzioarekin: 2.ak Europako Kopa (2001ean)
- ✓ Portugaleko Mundiala: 4.ak (2003an)
- ✓ Errege Kopa: txapeldunak (2003an)
- ✓ Asobal Kopa: txapeldunak (2003an)
- ✓ Europako Supercopa: txapeldunak (2003-2004 denboraldian)
- ✓ Nazioko Supercopa: txapeldunak (2003-2004 denboraldian)
- ✓ Tunezeko Mundiala: urrea (2005)



sartu
Zure arropa eta oinetakoa!
www.sartudenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

ASOBAL
TABERNA
Equidicid, asteleroz eta osteleroz
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitez!!
Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



DIEGO MTZ DE ANTOÑANA, IKER ROMEROREN ENTRENATZAILE OHIA

Diegok Iker entrenatu zuen Corazonistas ikastetxean aritu zen bitartean, eskubaloiko jokalaria 16 urte bete arte, alegia. "Nik bere anaia Aitorrekin jokatzen nuen garai horietan eta laster konturatu nintzen Ikerrek zeukan potentzialaz -dio-. Gainontzeko umeek ez bezala, Ikerrek baloiari ostikoak eman ez, baizik eta lastantzen zuen. Jokuari zegokionez, erasoan nabarmena zen, joko-sena zeukan eta ausarta zen. Argi zegoen hortik zerbait aterako zela".

Diegoren esanetan bere ezaugarri fisikoez eta teknikoez gain Ikerrek oso jarrera langilea izan du betidanik. "Partiduetan dena emateaz gain, entrenamenduetan ere gogotsu aritzen zen", nabarmendu du Diegok. Maila pertsonalean bere entrenatzaile ohia izandakoak Ikerrek bere lagunekiko eta familiarekiko duen atxikimendua azpimarratzen du. "Norbaitek pentsa dezake horrelako

mailara heldu ostean jendearekin ahaztu daitekeela baina erabat kontrakoa da. Ahal duen bakoitzean bere hirira dator gustura eta izugarri pozten da bere lorpenengatik lagunok zoriontzeko deitzen diogunean. Edozer emateko prest dagoen pertsona da". Tunezen otsailean jokatu zen Mundialean garaipena lortuta ere, Diegok aitortzen du Ikerrek adierazten duen ilusioa aurrera egiten jarraitzeko. "Pentsatzen duzunean goraino heldu dela orduan konturatzen zara helmuga berriak jartzen dizkiola bere buruari, eta lanean jarraitzeko izugarritzko gogoia daukala", aipatzen du Diegok.



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kontoika
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



telebistak ekarritako beste aurpegi

Bidaiaatzea gustuko duen heinean Amerikako Estatu Batuetan, Ingalaterran eta Irlandan ibili zen Dulce ingelesa ikasten; ondoren kazetaritza Leioan ikasi zuen eta El Correon egon zen Amurrio taldeari buruzko kronikak egiten. "Hastapenetan irratiko lankideen ondoan jartzen nintzen ez bainekien penaltia zer zen ere", aitortzen du. Oridoren, egun desagertutako Arabako Egunkarian hamar urte eman zituen, tartean Perun emakumeentzat egiten zen aldizkarian ere kolaboratu zuela. Egun Donostian komunikazioko master bat egiten ari da.

Kazetaritza munduan hainbeste urte eman eta gero erreta zegoen Dulce teleaioan parte hartzea erabaki zuenean. "Nire ustetan castingean esandakoagatik aukeratu ninduten -dio-. Hau da, kazetaritzan handinahi asko daudela. Batez ere egitasmo berriak daudenean jende gaztea oso sutua da eta batzuetan konturatu gabe lankideak izorratzen dituzu. Pasio handiko mundua den arren konplikatua ere bada".

ZERK DEITU ZIZUN ARRETA SAIOAREN CASTINGERA APUNTATZEKO?

Saioaren izenburua besterik ez nuen ezagutzen apuntatu nintzenean, "El conquistador del fin del mundo", eta abenturak berak erakarri ninduen. Bestetik, telebistako reality-a nola egiten zen ikusi nahi nuen.

ETA ZER BILATZEN ZENUEN?

Egunkarian bukatu eta gero esperientzia pertsonal ezberdina nahi nuen. Han, Patagonian, planteatzen dituzun gauzak ez dituzu etxean planteatzen. Izan ere, han hotzak eta goseak zaude eta lagunak falta ere sumatzen da. Bajoiak dituzunean ezin diezu deitu eta bakarrik egoteko memento asko dago... esperientzia pertsonal ona izan da erabat.

HORTAZ, ETSIPENIK EZ?

Ez. Bueltatu naizenetik pertsona hobea naizela pentsatzen dut, nahiz eta zenbait gauza aldatu behar ditudan. Telebistatik ikusi eta zenbait gauzatan aurrera egin behar

dudala iruditzen zait, adibidez, kontrolatu beharreko egiazaletasuneko bat-bateko horiek... denbora pasa denez beste ikuspuntu batetik baloratzen baitituzu gertaerak.

MEMENTO TXARRIK IZAN AL ZENUEN?

Hasierako egunetan Enekorekin izan nuen liskarraren ondorioz saioa uztea baloratu nuen, zurian geratzen baitzara, baina gero hausnartu eta aurrera egitea erabaki nuen.

TELEBISTAN AGERTZEARREN JENDEAK KALETIK EZAGUTUKO ZAITU, NOLA DARAMAZU?

Ez zait axola, gustatzen zait. Niretzat oso esperientzia ona izan da eta konpartitzeko beharra sentitzen dut. Jendeak animoak ematen dizkit, neska gazteek "Dulce forever", "zelako izaera daukazun" edota "zurekin identifikatzen naiz" esaten didate. Lagunek zenbaitetan pasatu nintzela ere esan didate, noski, baina orokorrean ona izan da.

ETA ORAIN LANGABEZIAN ZAUELA TELEBISTAN LANA

ezagun bat

Fundación Sancho de Sabio Fundazioa

JUAN EZKURRA

ASPARRENAko azken ikazkina

maite lekue

arg: edorta sanz

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

- ✓ ikazkina Araian (50. hamarkadan heldu zen)
- ✓ Basaburu arenean jaioa (Nafarroa)
- ✓ 82 urte

- ✓ ikazkintza denboraldian: martxotik urrira bitartera
- ✓ janaria: ogia eta ardoa nagusiki. Horrez gain babak ere bai
- ✓ behin txondor barrura erori zen

ikazkintza

50. HAMARKADAN BASABURU HARANETIK ASPARRENARA
JUAN EZKURRA IKAZKINA HELDU ZEN IKATZA EGITEKO
ASMOZ. GARAI HONETAN ARAIAKO BURDINOLA
ASETZEKO IKATZ UGARIA IZAN ZEN BEHARREZKOA ETA
HERRIAN BERTAN IKAZKINIK EZEAN EUSKAL HERRIKO
BESTE TXOKOETATIK ERAKARRI ZITUZTEN IKATZA EGIN ETA
NOLA EGITEN ZEN IRAKASTEKO. GARAI GOGORRAK BIZI
IZAN ZITUZTEN GURE IKAZKINEK; MENDI ETA BASOETAN
DENBORALDI LUZEAK EMATEN ZITUZTEN LANEAN
SENITARTEKOEN BEROTASUNA JASO GABE. GIZAKIAREN
GARAPENAK, ALDIZ, ITZALI EGIN ZUEN IKATZA LORTZEKO
BIDE TRADIZIONALA, ELEKTRIZITATEAREN
ASMAKUNTZAREKIN BATERA ENERGIA BIDE BERRIAK
ERABILTZEN HASI ZIRELAKO.

Antzinakoa dugu egur-ikatz egiteko teknika. Orain dela hiru mila urte, Burdin Aroan, burdinolak martxan jartzeko beharrezkoa izan zen Euskal Herrietako mendietan altxatutako txondorretatik ateratzen zen landare-ikatz. Honela ba, azkenengo mendean sortutako iturri-energetiko modernoek alboratu egin zituzten erabilitako baliabide naturalak. Garapen honek amaiera eman zion ikazkinaren lanari. Herrialdeko egur aberastasuna zela medio garaiko sozio-ekonomiaren sustengu izatera iritsi zen ikazkintza eta lan hauetan ibili ziren ehunka ikazkin Euskal Herri osoan. Hauetako bat Juan Ezkurra da eta berriro ere txondor bat eraikitzeke gogotsu agertu da. Izan ere, oraingoan Araian, herrian bertan, txondor bat eraiki baitute.

Txondorra berriro martxan

Herrialdean usadio izandako lanbidea berreskuratu eta gogorarazteko txondorra bat eraikitzea proposatu zioten Juan Ezkurrari, eskualdean bizirik dirauen azken ikazkinari, eta Victor Olabengoa eta herriko Kepa Azkona laguntzaile izaki, herriko historiaren pasarte hau gogorarazi nahi izan diete bertakoei. Beste askori aldiz, gazteenei hain zuzen, eskualdeko ekonomian oinarri izandako ogibidearen nondik norakoak adeitasunez irakastea izan dute helburu, lanbidearen belaunaldi berria izango ez denez oroimenenean ikatza lortzeko antigoaleko bidea ezagutzera emateko. Horrexegatik txondor bat inauguratu zuten otsailaren 12an Araia Presalde kalean.

Txondorrek 2,40 metroko altuera du, teilatu bat eraiki behar izan diote negu latzaren ondorioei aurre egin ahal izateko eta bertara inguratuko den bisitariarentzat txondorra egiteko prozesuaren azalpenak jasotzen dituen panel batzuk kokatu dituzte. Herriaren historian garrantzitsua izandako ikazkinen lana ezagutzeko parada ezin hobea Asparrenako Udalak abian jarritako ekimena.



Juan Ezkurra



Victor Olabengoa, laguntzailea





Ikazkinarena, lan latza

Ikazkinaren lana latza dela diosku Juanek, eguzkia atera eta sartu bitarteko jarduna egiten zutelako mendian ikatza egiteko egur-meta eraikitzen. Eguneko txondor bat egiten zuten 8-10 lagunen artean garairik onenetan. Egur bilketan bi hil ematen zuten, basoetako pagoen bila gehienetan, baina baita artea eta haritza bila ere. Herri jakituriaren aburuz, ilberrian moztu behar da egurra, ilbeteen moztuz gero ikatzak emango duen sua motela eta geldoa izango den ustea baita.

Mendiko bizimodu bakarti eta latza, Montxo Armendarizek Tasio pelikulan irudikatu zuena bezalakoa. Arriskuz betea batzuetan, Juanek kontatu bezala, txondorraren ahara erori baitzen behin eta kixkalitako oinekin ibili behar izan zuen garaia gogoratzean. Baina ikazkinarena, ogibideaz aparte bizimodua ere badela azaldu digu Juanek.

Txondorra eraikitzen pausoz pauso

Udaberri hasieran, ilberri garaian, arbol bakoitzaren adar bakar batzuk moztzen zituzten, horrela urte gutxi batzuen buruan zuhaitza berriro inausi ahal izateko. Behin egurra moztuta txondorraren oinarria izango den sare moduko egitura osatu behar da, erdian zutina kokatu eta horren inguruan, neurri bereko lau egur puska finkatu txondorraren kebidia egiteko.

Txondorraren barne-euskarriak kokatu eta gero, behetik gora hasiko da eraikitzen, enbor lodienak azpian, zenbat eta gorago, hainbat eta meheagoak kokatuko direlarik. Barne egitura altxatu ondoren, txondorra estali egiten da. Basoan bildutako orbela, adar txikiak eta zotala ezarriko ditu

ikazkinak egur-metaren gainean, egitura mardula osatuz.

Oso garrantzitsua da guztia ondo estaltzea; su eman eta gero, poliki-poliki egosi beharrea, haizea sartuko balitz, erabat erreko bailuke txondorra eta dena alferrik galtzeko arriskua sortzen da.

Hau guztia egin eta gero zulo txiki batzuk irekiko dira txondorraren inguru osoan, hortik kea atera dadin. Barruko suak eragingo dituen zulo handiak, ordea, zotalez estaliko dira agudo; guztia errautes bihurtzeko arriskua sortzen baitute.

Su ematea besterik ez da falta txondorrari bizia emateko. Txondorraren inguruan kokatutako egurrezko eskaileratik igo eta konoaren tontorretik txingarra edo betagarria sartzen da eta jarraian latorrizko tapakiaz estali. Ordu gutxiren buruan, kea dariola ikusiko dugu txondorra eta barruko egurra eraldatzen hasiko da ikatz begetalean. Egur-metaren barnean gertatzen den prozesua ur galtzea da: poliki-poliki suak ura xurgatuko dio egurrari eta ikatz bilakatu da.

Egurra, beraz, ez da erreko; pixkana-pixkana egosiko baizik. Egurra egosi bitartean, ikazkinak txondorra elikatzen segituko du, suak zabalduetako zuloak estali eta egosketa burutu arte enbor txikiagoak sartuz.


Ikazkinek denboran zehar gordetako ohitura txondorraren gainean gurutze bat kokatzea da, ikatza egiteko prozesu osoaren babes-ikur bezala jokatu zuena, baina ez edozein, txondor bakoitzak bere gurutzea izan behar baitzuen.

Hauxe da Euskal Herriko mendietako ikazkinek mendeetan zehar egindako lana, gaur egun itzalitakoa, Asparrenako ekimenari esker askoren oroimenean gordeko dena.



Izotz Garcia: "herrian bizitzea gustatuko litzaidake"

HAURRAK ETA ANTZERKIAK DITU GUSTUKO IZOTZEK, 25 URTEKO GASTEIZTARRAK. HORREN ADIERAZLE DUGU BERE EGUNGO JARDUERA. IZAN ERE, ORAIN DELA 4 URTE ANTZERKIGINTZA IKASTEN HASI ZEN ETA EGUN UMEEI ERE IRAKASTEN DIZKIE ANTZERKIAREN SEKRETUAK. HONEKIN BATERA, HAUR HEZKUNTZAKO IKASKETEI ERE EKIN DIE ARABAKO MAGISTERITZA ESKOLAN. ALAIA ETA BERRITSUA, GASTEIZEN BIZI BADA ERE, "AMETSA NAFARROAKO BARGOTA HERRIAN BIZITzea" DELA AITORTZEN DU. HAUXE DA, BETIKO LEGEZ IRIBARRETSU ETA ENERGIAZ ASETUTA DAGOEN IZOTZEK KONTATU DIGUNA:



- DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Barre egitea.

- ETA BERTUTEA?

Nik zer esango dizut ba!!... akaso, edozerrekin ondo pasatzen dakidala.

- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Jendea kaletik irribarrez ibiltzea.

- AMETS BAT?

Askatasuna.

- ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Hipokrisia.

- GEU ELKARTEA ETA ALDIZKARIAREN BERRIRIK BAI?

Bai, aspalditik. Noizbait, hasierako aleetan ere agertu naiz eta!

- EGUNKARI BAT?

Gara eta Berria.

- TELEBISTA SAIO BAT?

ETBko 'La noche de...'

- FILMIK GUSTUKOENA?

Denys Arcand-en 'Las Invasiones Barbaras'.

- JAKI GOZOREN BAT?

Bakailaoa, edonola.

- FOBIARIK, BELDURRIK?

Munduko egoerak luzera horrela jarraitzea.

- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

la edonon eta gauza berriak ikasteko.

- ETA NORA EZ ZINATEKE JOANGO?

Benidormera, adibidez.

- LIBURU BAT?

Alexandro Bariccoren 'Tierras de Cristal'.

- MUSIKA GUSTUKOENA?

Denetarik, musika mota asko gustatzen zait.

- ANIMALIA BAT?

Urtxintxa.

- GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?

Lepoa.

- ZER DA GASTEIZEK DUEN ONENA?

Alde Zaharra, bertan taberna asko eta elkarren artean gertu daudelako.

- ETA TXARRENA?

Polizia asko eta Udala.

- EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

Bai, baino zailtasunekin.

- ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Askatasuna eta jaia.

Perearentzako Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren txartela

maiteder sasieta murua
(xenpelar d.z.)

Legutioko Kultur Etxeak Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren eta azken kanporaketa jaso zuen San Jose egunean. Aretoan jende dezente elkartu zenean taularatu ziren sei bertsolariak: Manex Agirre, Orlando Arreitunandia, Zigor Enbeita, Oihane Perea, Rikardo Gonzalez de Durana eta Izar Mendiguren. Esan beharra dago Manex Agirre eta Oihane Perea zuzenean sartu direla final aurreetan joan zen urtean finalista izan zirelako. Guztiek lan bera egin behar izan zuten Irati Lotina gai emalearen esanetan: hiruna bertso zortziko nagusi, zortziko txiki eta hamarrekotxo txikian eta kartzelako lanean puntuari erantzuna eta gai bati bina bertso doinu eta neurri librean.

Oro har fin aritu ziren sei bertsolariak, baina sorpresa handirik ez zuten eskaini. Oihane Perea, Zigor Enbeita eta Manex Agirre gailendu ziren guztien gainetik. Perea urteroko indarrarekin sartu da txapelketan; Enbeita, joan zen urtean finalerako txartelik lortu ez zuen arren, maila polita ari da erakusten txapelketa osoan zehar eta Agirrek ere egoki bete zuen bere lekua.

Ofiziotan zortzikoetan aritu ziren bertsolariak ondoen, hamarrekotxo txikian ez baitzuten gaiekin asmatzen jakin. Inola ere kartzelako lanean entzun ziren arratsaldeko bertsorik onenak. Hamar urterekin itsu geratu eta ebakuntza baten bidez ikusmena errekupera dezakeen pertsonaren lekuan jarri zituen bertsolariak Lotinak. Gaiak hala eskatuta oso bertso sakon eta xamurrak entzun ahal izan ziren bertsolarien ahoetatik.

Behin lan puntuagarriak bukatuta hau izan zen epai mahaikideek bertsolariei eman zieten puntuaketa: lehenengo postuan Oihane Perea 306 punturekin, bigarren Zigor Enbeita (300 p.), hirugarren Manex Agirre (299 p.), laugarren Rikardo Gonzalez de Durana (293.5 p.), bosgarren Izar Mendiguren (275.5 p.), eta seigarren lekuan Orlando Arreitunandia (266.5 p.).

Modu honetan kanporaketa hartan erabaki zen zein bertsolari egongo den datorren hilaren 9an Gasteizko Kontserbatorioan jokatu den Final handian: Amurrioko saioko Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre eta Juan Mari Juaristi eta Legutioko saioko Oihane Perea, Zigor Enbeita eta Manex Agirre.



DIOCESANASen

III. euskarazko ipuin lehiaketa



EUSKARAZKO LITERATURA SUSTATU NAHIAN DIOCESANAS IKASTETXEAK HIRUGARREN EUSKARAZKO IPUIN LEHIAKETA ANTOLATU DU. LEHIAKETA HONETAN ARABAKO LEHEN HEZKUNTZAKO (5. ETA 6. IKASTURTEAK), DBHKO ETA BATXILERGOKO ETA ZIKLOETAKO IKASTETXEETAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLE GUZTIEK PARTE HAR DEZAKETE. LANAK DIOCESANASEKO EDOZEIN IKASTETXETAN AURKEZ DAITEZKE, APIRILAREN 18A BAINO LEHEN.



Iñaki Resa, Diocesanaseko zuzendaria

Ikasleen artean euskarazko literatura bultzatu eta, bidenabar, euskararen erabilera ikasgelatik kanpo sustatzeko asmoz, ipuin lehiaketa antolatu du aurten, hirugarren aldiz, Diocesanas ikastetxeak. Iñaki Resa ikastetxeko zuzendari eta euskara arloko arduradunak azaldu digunez, ekimen honen helburua da "euskaraz ikastetxeko tresna bat izatetik adierazpen tresna bat izatera pasa dadin". Izan ere, Gasteizko ikastetxe askotan gertatzen den legez, Diocesanasen ere euskara soilik ikasgai moduan hartzen dute ikasle askok, eta lagunekin aritzeko orduan, berriz, gaztelaniara jotzen dute.

Hartara, euskarari behar bezalako bultzada emateko asmoz ipuin lehiaketa antolatu dute hirugarrenez. Lehengo edizioan Arabako bost ikastetxetatik 50 ipuin aurkeztu ziren, eta iaz, berriz, zortzi ikastetxetatik igorri zituzten ipuinak: orora, 90 ipuin. Aurtengo edizioari begira, erantzun handiagoa espero dute Diocesanasekoek, eta ikasle guztiei dei egin diete idaztera animatu daitezen.

Ipuinek orijinalak izan behar dute, euskaraz idatzita eta aurretik argitaratu ez direnak. Aurkeztutako lanak gehienez 7 folio luze izango dira (A-4), eta gutxienez, hiru. Parte hartzaileak hiru kategoriatan sailkatu dituzte:

a) Lehen Hezkuntza (soilik 5. eta 6. ikasturtetako ikasleak), b) DBH eta c) Batxilergoak eta Heziketa Zikloak. Sailkapen horien arabera sariak emango dituzte. Kategoría bakoitzean irabazten duenari diploma eta eskola-materiala erosteko txartel bana emango zaio. Epaimahaia, berriz, literatura munduan berezitua dauden Diocesanaseko sei lagunek osatuko dute.

Bestalde, aurkeztutako ipuin guztiekin bilduma bat argitaratuko du Diocesanasek, eta sariak banatzeko orduan, irabazleei (dagokien sariarekin batera) ipuin guztiak biltzen dituen liburuxka bat emango zaie. Aurrera begira, gainera, ipuin guztiak liburu batean kaleratzea ez du baztertzen ikastetxeak.

Euskaraz idaztea ikasleentzat "konpromisoa" izan daitekeela airtotu digu Resak, eta alde horretatik batzuek "ahalegin berezia" egin behar izaten dutela diosku. Hori dela eta, Resak irizten dio euskara erabiltzeko "kontzientzia soziala" lortzea ezinbestekoa dela, hots, euskara gure hizkuntza dela ulertu behar dela. Eta lehiaketa honen bitartez bide horretan pausoa eman nahi dela azaldu digu. Aurreneko urratsa egitea, dena dela, ikasleei dagokie. Beraz, ikasle guztiei euskarazko ipuinak idazteko gonbita egin die ikastetxeko zuzendariak.

EL BAR Kutxi

eguneko menua

DIBUtec

Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkaderazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

Dazkarprint

Inprimatua / Inprimategia
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKO • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatzkoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 1^onoa. 945 25 02 39

XIBA EGITASMOA,

euskal jokoen II. topaketa

Euskal joko eta dantzen jaialdia gure artean berriz ere

saioa fdz de arangiz

arg: xiba

TXINGAK,

HARRIA JASOTZEA, LASTO ALTXATZEA, XIBA, LOKOTXAK, SOKA-TIRA EDO TRONTZA ASKI EZAGUNAK DIREN JOKOAK DITUGU, HALARIK ERE, INOIZ GUTXI JOKATZEN DITUGUNAK. GURE KULTURAREN ADIERAZLE DIREN JOLAS TRADIZIONAL HAUEK BERRESKURATU ETA GIZARTERATU NAHIAN, XIBA EGITASMOA AGERTU DA GURE ARTEAN BERRIZ ERE, IAZ BEZALA, AURTEN ERE EUSKAL HERRIKO JOKO, JOLAS ETA KIROLAK TOPAGUNEA ABIAN JARRI BAITU. **ROBERTO ACEBES XIBA EGITASMOAREN SUSTATZAILEAK MAIATZAREN 14AN IZANGO DEN JAIALDIAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZKIGU:**

XIBA, ZERGATIK IZEN HORI?

Esanahi sinbolikoa du egitasmoak. Xiba ez da izen hutsala, bueltaka eta aurrera doan izena baizik. Behin erorita berriz eragin behar zaiona da, gure kultura bezala.

HITZ GUTXITAN, ZEIN DA LORTU NAHI DUZUEN HELBURUA?

Euskal joko tradizionalak berreskuratu, zaharberritu eta indartu nahi ditugu. Hau da, euskal kirolak gizarteratzea da gure asmoa, batez ere, jokoa eta jolasaren garrantzia aldarrikatuz. Kirola, batez ere, lehiakortasunarekin du zerikusia baina guk jokoa eta jolasaren beste baloreak suspertu nahi ditugu, adibidez, kulturarena.

AURTEN ERE EUSKAL JOKOEN II. TOPAKETA ANTOLATUKO DUZUE ARABAN...

Bai, hala da. Arabari dagokionez, Gasteizko Foru plazan izango da maiatzaren 14an. Topaketa arratsalde partean izango da eta ostean afaria (dohainik) eskainiko zaie partehartzaile guztiei. Izan ere, egun hori baino bi aste lehenago formaziorako bi egun egongo dira. Bertan, partehartzaileek proba guztiak aldeztu aurretik ezagutzeko aukera izango dute.

ZERTAN DATZA TOPAGUNEA?

Esku hartzen duten taldeek euskal joko ezberdinak egin behar izango dituzte, esaterako, harria jasotzea, ingudea, lasto altxatzea, lokotxak jasotzea, txingak, trontza edo soka-tira. Horrez gain, dantza eta gure herrialdearen kasuan, Arabako boloak ere egongo dira. Aurtan berritasunak izango ditugu, hala nola, atzerriko jokoa eta xiba, baita sorpresaren bat ere!

Azkenik, topagunearen egunean ondo egiten duten taldeek Euskal Herri mailan ospatuko den topaketan esku hartzeko aukera izango dute.

IAZKO OSPAIZUNA ARRAKASTATSUA IZAN ZEN OSO. ETA AURTENGOA?

Bai, iaz, lehen urtea izanik, kriston arrakasta izan zuen. 200 pertsona inguru bildu genituen eta guztira 13 taldek

esku hartu zuten probetan.

Nire aburuz, aurtan jende gehiago animatuko da, iaz izan zirenak ondo pasa zutelako eta aurtan jende gehiagok gure egitasmoaren berri duelako.

ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

12 pertsonako taldeak osatu behar dira, 6 emakumezko eta 6 gizonezko. Apiril osoan izena emateko epea zabalik egongo da eta aski da honako telefono hauetara deitzea: **945 27 63 76** edo **658 75 09 93** (Roberto).

AZKENIK, NOLA ANIMATUKO ZENUKE JENDEA?

Nik uste dut gizaratean jokoei gabezia bat dagoela, gehienbat, jokoei lehiakortasunarekin lotura estua dutelako. Izan ere, harremanetarako tresna ere badira jolasak eta nik alde hori nabarmenduko nuke. Azken finean, lehia ez da garrantzitsuen, bertan sortu daitekeen giro ona baizik. Horrez gain, bide batez joko hauek gizaratean ezagutzera emateko modu aproposa dugu topagunea. Beraz, anima zaitzete!!



iazko topaketa



koldo ortiz de ginea

Zer da alavesismoa?

Artikulu honetan agertzen diren gogoetak, ideiak edo proposamenak eztabaidagai moduan plazaratzen ditut. Araba desberdina dela nabaria da Euskal Herriko beste herrialdeak diren hein berean. Baina desberdintasun mundua bakarrik aldarrikatzeak dakar berekin, nahi eta nahi ez, estatu espainarraren alde egitea eta Euskal Herria ukatzea. Logika horretan estatu espainiarzaleak ezezik sasi-abertzaleak ere badaude. Desberdintasunak desberdintasun, guk azpimarratu, bilatu eta aldarrikatu behar dugu horren gainetik batzen gaituena: euskal sena, hain zuzen ere. Adibidez, herrialde bakoitzean ekitaldi propioak egiten dira; desberdinak, alegia (Araba Euskaraz, Kilometroak, Nafarroa Oinez, etab.) baina helburu komun bat dute: Euskal Herriaren propioa dena azpimarratzen dute. Propioa da, aldi berean, desberdintzen eta batzen gaituena: arabar izanik Euskal Herrikoak izatea. Izan ere, propioa da desberdintasun guztien gainetik herri gisa batzen gaituena. Herri moduan agertzen ez garenean gure herrialdean konkretuki alavesismoa da nagusitzen dena. Eta **zer** da alavesismoa? Niretzat, argi eta garbi, imajinario bat da. Eta zer da imajinarioa? Imajinarioa da gizartea, ingurua eta, azken batean, gure ezaugarri guztiak interpretatzeko eta baloratzeko sortarazten diguten eredu bat. Behin sortu eta gero eredu horri jarraitu eta imitatu besterik ez da gelditzen. **Nortzuk** dira alavesismoa formulatzen dutenak? Beren garaian garaile suertatu zirenen aldekoak eta hauen ondorengoak (Gaztelaren aldekoak, liberalen aldekoak, Francorenak eta, gaur egungo, konstituzionalistak deitzen direnak). **Noiz** sortzen dute alavesismoa? Erabakigarriak diren mementoetan edo/eta, beste modu batez esanda, kontraesanaren eta gatazkaren unetan (Arabako konkistan, karlistaldietan, guda zibilean, erreforman). **Zertarako** sortzen dute? Alde batetik, arrotza den estatu batean integratzeko eta, bestetik, propioa duen naziotik aldentzeko. Helburu hauek

guztiak lortzeko Arabako historian zehar imajinarioa egokitu beharrean egon izan dira betidanik, eta nahiz eta formulazioa desberdina eduki funtsean elementu komun batean oinarritu dira hasieratik;



aitortu ezina den gertaera batean: Araba konkistatua izan zela. Konkistatu, konkistatu zuten baina Euskal Herriaren Alaba izatearena hori bai ezin izan dutela guztiz ezabatu, mila eratan saiatu arren. Beraz, alavesismoa lehenengo mementotik aipatutako kontraesan horretatik ateratzeko asmoz hipokrisia eta faltsukeria erabili behar izan zuten; alegia: Voluntaria Entrega delaķoa asmatu behar izan zuten. Ikusten denez hau *contradictio in terminis* bat besterik ez da. Hauek, noski, orain ere lehengo lepotik burua: arabarrok integratu nahi izatea potentzia zapaltzailean baina betiere, esan bezala, aitortu gabe. Hau da alavesismoaren funtsa.

Oraingo garaietara etorri alavesismoa argiro egokitu zuena UA izan zen (PPSOE jarraitzaile sutsuak izanik). UAren fenomenoaren erreaktiboa izan zen: erreakzionatu zuen Arabako euskalduntasunak (lurraldetasuna, euskal kontzientzia, abertzaletasuna, euskararen eta euskal kulturaren garapena...) aurrera jotzen zuen heinean. Hau guzti hau

aitortu ezina zenez beren imajinarioa zabaltzeko bigarren mailako kontu batzuez baliatu ziren: Ajuria-Enea dela, geriatrikoa dela, Arkaute dela, urtegiak direla, etab. Gaur egungo alavesismoaren formulaziorik adierazgarriena *Hablemos alavés* da. Ikusten denez hasierako hipokrisia bera egokitu dute oraingo garaietara. Kasu konkretu eta esparru konkretu batean: hizkuntzan, alegia.

Logika honetan eta alavesismoa bizirik iraunarazteko saihestezinak dira aldame-nekoekin parekatzea eta horrekin batera sortzen dira frustrazioak, gorrotoa, inbidia eta, azken finean, irteerarik gabeko ganoragabekeria: Bilbon egin badute museoaren haren ere, aireportuarekin berdin, hemengo ura lapurtzen digute, etab. Hau bai dela lehiakortasun zentzugabea eta gainera irabazleak hasierako zapaltzaileak izanik!

Aipatu ere egin behar da beste herrialdeetatik datozen portaera sasi-abertzaleetatik hainbat jende alavesismoari egiten dioten jokoa. Hain zuzen ere, desberdintzen gaituena aldarrikatzen baitute era mespretxugarrian ("patate-roak" direla, Araba erdalduna dela, Araba Gaztela dela, mesetako paisaia dela, etab.) batzen gaituena ahazten dutelarik.

Horregatik, Estatu espainolera eramaten gaituen laberinto honetatik atera behar dugu Arabak propio duena garatu ahal izateko. Geurea aberatsa da, datu objektiboek adierazten duten bezala (kantak, ardoak, perretxikoak, sukaldaritza, boloak, jokoak, herri kirolak, nekazaritza, herrialdearen desberdintasun geografikoak, ondare historikoa, berezko jaiak, etab.). Datu hauek guztiek iraunarazten dute Arabako euskal sena faltsukeria eta engainu guztien gainetik, eta bat egiten dute arlo subjektiboa azalarazten duten gure herriaren aldarrikapen sentikorrenekin: autodeterminazio eskubidea, euskara, presoak, lurraldetasuna, justizia, elkartasuna, etab. Hauek dira, ene ustez, Arabartasunaren berme bakarrak.



APIRILA

GEU

GEUREKIN MENDIRA TALDEAREN 10. URTEURRENA

apirilak 8:

ARGAZKI IKUSKIZUNA & GURE HIMALAYA MENDI PROIEKZIOA (ALBERTO IÑURRATEGI)

19:30ean, Luis de Ajuria aretoan

Ondotik, ardotxo.

AFARIA, 22:00etan

Izena eman beharko da, edo elkartera deituz, arratsalde (945222153) edo e-mail bat bidaliz, izen-abizen eta telefonoarekin.

apirilak 10:

GASTEIZ-ARGANTZU MENDIZ MENDI:

-Irteera: 09:00etan

-Ibilbidea: Lovaina plaza, Armendia, Zaldiaran, Busto, San Miguel, Argantzu. Txikiteoa Argantzuko kaleetan. Jatekoa eramatea gomendatzen da.

-Itzulera: 15:30ean Gasteizen, trenetx

GEUREKIN MENDIRA

apirilak 17

AREETZAKO TRIKUHARRIAK (983 m) (*arratsaldean itzultzekoa)

Arduraduna: Bego-945266812

Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

apirilak 21

Oscar Wilde, Fidel izan beharraz, Ibaizabal 2000

Hikaatenoan (Pintore kalea, 13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:

Ur Apalategi, Gure gauzak S.A., Utrisque Vasconiae

maiatzak 26, osteguna

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VIII. IRTEERA

apirilak 24

AITZKORRI

Irteera: goizeko 8:30ean Lovainan. Kotxez

Informazioa: 945222153 (GEU elkarte - Josune)



ZINEA EUSKARAZ

hileko 1. larunbatean, 12: 00etan

Antolatzailea: Euskharan elkarte (Amaia zentroan-Aranbizkarra)

ARABAKO BERTSO TXAPELKETA: FINALA

apirilak 9

17:30ean Gasteizko Jesus Guridi Auditorioan

Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Asier Otamendi, Manex Agirre, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi. Aurkezle: Naroa Sasieta.

Sarrerak salgai: Arriaga Megadendan, Amaia Zentroan arabako bertsozale elkarte (benito pz galdos z/g)

945010505/675707971

bertsoaraba@euskalnet.net-araba@bertsozale.com

KULTUR IKASTAROA

apirilaren 12tik ekainaren 21era

GURE LANDAREAK EZAGUTZEA (euskaraz)

astearte eta ostegunetan, 19:30-21:00

Matrikula epea zabalik

Gasteizko Udala / Hegoalde gizarte etxea

XX. DANTZEN ESKOLA TOPAKETA

apirilak 16

Antolatzailea: ADB, Araba Dantzarien Biltzarra

17:30etik aurrera Gasteizko erdialdean (amaiera Landatxon, umeentzako jaiarekin)

629441344 (marian)

639609608 (Gustavo)

GAUEKOAK. KONTZERTUA

apirilak 16

DAIA (house-dance euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaraz / www.rundownmusic.com)

NEX BASKONIA guanean, IV

KARAOKE OPERAZIOAREN

FINALEAN

Sarrera libre. www.gauekoak.com



IPUIN KONTALARIA

apirilak 22

Rosa Maria Martinez

"Elefante jakinguratsua"

Zigoitiko zentro soziokulturalean, 19:00etan

DANTZA GARAIKIDEA

apirilak 22

GAU BAKAR BAT (moaré dantza taldea, idoia zabaletaren zuzendaritzapean)

20:30ean, Hegoalde gizarte etxean (Jesus Ibañez de Matauco antzokian)

geugaste@grn.es

AGENDA

ZINEA

apirilak 25-27 / maiatzak 3-7

NEFF (Europar Zine Berriaren Jaialdia-Festival de Nuevo Cine Europeo)

Gasteizko zine erakustaldien esperientzien bilgunea da (Ikus-entzunezko Jaialdia & Egile Berrien Jaialdia & Cortada)

Egitarrak barruan, ikasleentzako euskarazko emanaldiak izango dira.

www.neffestival.com

Montehermoso Kulturunea: 945161830

ERAKUSKETA

maiatzaren 20ra arte

HIRI GAZTEA ERAIKIZ

Hiria Gunea aretoan (S. Prudentzio, 30)

Bisita gidatuak & informazioa: 945124979

Antolatzailea: Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org



FANTASIAZKO IPUIN LABURREN XIII UNIBERTSITATE LEHIAKETA

maiatzak 27 (epea)

Antolatzailea: EHU. Arabako Campuseko Errektoreordetza
www.vc.ehu.es

KULTURika 05

maiatzean: Antzerkia
ekaina: Ikaperia (ikasturte amaierako jaia)
urria: Ikasturte hasierako jaia
azaroa: Zinea euskaraz
abendua: Neguko jaia

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN-2005

2 ardatz:

Familia (jasotzaileak). Izena emateko epea: apirilak 15
Ikasleak: maiatzaren 3tik 31ra

Helburua: euskara ikasi eta hobetzea

Antolatzaileak:

Ulibarri euskaltegia (Bilbo) / Urrats euskaltegia (Donostia)

familientzat: 943474447 (Olga)

ikasleentzat: 944162472 (Alaitz)

www.egonaldiak.net

SEXMETRAIA

Arrasateko Sexologia

Zerbitzuko 1. Laburmetrai

Lehiaketa

www.sexologiazerbitzua.com

/sexmetraia

943798010

PEDRO DE ATARRABIA XVII. LITERATURA SARIKETA-2005

irailak 16 (epea)

Kontakizun laburrak

Antolatzailea: Atarrabiako

Udala

PARRAL TABERNA

apirilak 5. ANTZERKIA:

Kanariar irletatik etorritako Jesus Tanausu aktore-komikoa.

apirilak 12. BERTSO SAIOA: Gasteizen bizi baina Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako bertsolariek

bertso saio berezia eskeiniko digute: Miren Artetxe, Iñigo Izagirre, Julen Zulaika, Harkaitz Oiartzabal eta Egoitz Zelaia. Gai-jartzaile lanetan: Joseba Beltza.

apirilak 19. MUSIKA: Bakarlarri lanetan arituko zaigu Madrilgo PEDRO HERRERO. Madril aldean ezagun egin da Ruben Burenekin batera DESAKORDES taldea osatuz.

apirilak 26. MUSIKA: NOVENO IN BLUES talde gasteiztarra asteartero 20:30ean

bestelako hitzordu interesgarriak

3. LANDARE BEREZIEN AZOKA

apirilak 2-3

Pagoeta Parkeko Iturrran Lorategi Botanikoan

www.iturrran.org / 943 83

53 89 / iturrran@gipuzkoa.net

Iturrran Parketxea. Pagoeta

Parkea. Aia



2. PRESTAKUNTZA & EZTABAIDARAKO JARDUNALDIAK: GENERO EKITATEA GLOBALIZAZIOAN

apirilak 11-21

Donostia, Gasteiz, Bilbo

Ikastaroa: Generoa, Informazioko teknologia berriak eta komunikabideak.

Gasteiz: apirilak 12-13 (Montehermoso kulturunean, 16:30-20:30)

Elkartasun eta zinema emanaldiak: indigenek egindako bideoak (errealizadore indigenak). apirilak 18-21

Antolatzailea:

Mugarik Gabe (945277385)

KONTZERTUA

apirilak 16

ORTOPHONK (5. urteurrena)

Kinvara aretoan, 21:30ean

"AFRIKA, BESTELAKO BEGIRADA ETA AHOTSAK JARDUNALDIAK"

(ekaina bitartera)

apirilean

Diaporama-irakurketa: "Afrika, bestelako begirada eta ahotsak" (Xabier Errasti, bidaiaria & SEADen kidea)

Hikaateno-n.

Pintore kalea 13-behekoa.

945288192

gasteiz@hikaateneo.org



> **GEU**
GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

laguntzailea:

Obra Social
Caja Vital  **Vital Kutxa**

Gizarte-Ekintza

the brontës



BURU-BELARRI ARI DA THE

BRONTËS TALDEKO

HIRUKOTEA EUREN

LAUGARREN LANA IZANGO

DENAREN ABESTIEN

PRESTAKETETAN. IÑAKI

CALZADA BAXUA, RAUL

RAMA AHOTSA, KITARRA ETA

KONPOSITOREA ETA IÑAKI

ACEDO BATERIAJOLE

GASTEIZTARREK, GEU

ALDIZKARIARI AURREBATU

BEZALA, ABUZTU ALDERA

CADIZEN GRABATUKO DUTE

'WAYS TO NOWHERE'

IZENBURUKO DISKO BERRIA.



AURTEN THE BRONTËS TALDEA OSATU ZENUTENETIK
10 URTE BETE DITUZUE, OSPAKIZUN BEREZIRIK
EGINGO DUZUE?

Raul: Ez dugu ospakizun berezirik egiteko
asmorik. Aurtengo lanik garrantzitsuen
abesti berriak grabatzea izango da. Aurreko
diskoarekin egin genuen bezalaxe, Cadiz
aldera abiatuko gara eta han hamabost
bat egun emango ditugu estudioan,
grabatzen. Beno, tartean, abuztuan
grabatuko dugunez, hondartzara joan,
garagardo batzuk, arrain frijitua... Dena
ez da sufrimendua izango.

Iñaki Calzada: Bai, hori izango da
hamargarren urteurrena ospatzeko pentsatu
duguna. 'Mary&Jim' diskoaren grabazioan
primeran pasa genuen Paco Locorekin,
produktorearekin, eta oraingo honetan ere
asmo horretan joango gara. Oso
esperientzia aberasgarria izan zen guretzat
eta, berriz ere harekin grabatzea proposatu
zigutenean ez genuen bitan pentsatu.

HAMAR URTE HAUTAKO BALORAZIOA EGIN
DUZUELA PENTSATZEN DUT. ORAIN ARTEKO

BIDEARI SO EGIN ETA... ZER DERITZOZUE?

Raul: Hamar urte luzeotan, pentsatuko
duzun bezala, denetarik izan dugu.
Kilometro ugari furgonetan, ordu luzeak
entseiatzen, grabazioak, kontzertu eder,
jendetsu eta gogoangarriak, kontzertu
ez hain onak... Nire ustez, balantzea
positiboa da. Nahi duguna egin izan
dugu, eta gustura aritu gara. Diskoetxearen
aldetik presiorik ez dugu jasan, eta geure
erara jardun dugu, inori kasu handirik
egin gabe. Musika mundua ez da batere
erraza, eta inportanteena da egiten duzun
horretan sinestea. A! Eta aurrera begiratzea.

Iñaki Calzada: Bai, ikasi egin behar da
entsegu bakoitzean disfrutatzen. Gakoa
hori dela uste dut. Bestetik, hiruron arteko
giroa ere ona izan da. Batzuetan, egunak
ematen ditugu elkarrekin, leku batetik
bestera, muntatzen, jotzen, desmuntatzen,
furgonan... oso nekagarria izaten da.
Memento horietan guztiok jarri dugu
geure aldetik eta gauzak ondo atera dira...
Pazientzia handia daukagula uste dut.

Iñaki Acedo: Hamar urte elkarrekin!
Gezurra dirudi! Nire ustez ere, balantzea
oso positiboa da. Honetan hasi ginenean,
asmoa elkartzea eta ondo pasatzea izan
zen, eta, jakina, gustatzen zitzaigun
musika egitea. Eta halaxe izan da, hori izan
da hamar urteotan egindakoaren laburpena:
nahi eta gustatu izan zaigun guztia egitea.
Memento txarrak ere izan dira, baina
proiektuan sinetsi dugu eta aurrera egin
dugu. Tira, hamar urte betetzea mundu
honetan ez da erraza!

ORAIN ARTEAN HIRU LAN KALERATU DITUZUE
GUZTIRA. ESTILO, MUSIKA EDOTA HITZEN ARTEKO
ALDERIK DISKO HAUEK ARTEAN?

Raul: Orain arte, hiru lan kaleratu ditugu.
Lehendabizi, 'First' izeneko maketa bat
grabatu genuen. Grabazio estudioarekin
lehenengo kontaktua izateko, oso pozik
geratu ginen emaitzarekin. Bigarrenik,
'Moontime' izeneko diskoa izan zen,
Arrasaten grabatu genuen, Shot! estudioan,
hain zuzen. Guretzat oso aukera handia
izan zen, eta, nolabait esateko, lehen lan

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

10 urteren buruan

"serioa". Disko hari esker, kontzertu ugari emateko aukera izan genuen. Azkenik, 'Mary&Jim' izeneko lana grabatu genuen, Cadizen. Gure ustez, lehen diskoaren jarraipena izan zen. Lehen esan bezala, grabazioan Paco Loco ezagutzeko aukera izan genuen, eta, handik aurrera, harremana oso ona izan da. Produktore horrek gure estiloa definitzen izugarri lagundu digu eta taldearen pertsonalitatea ondo ulertu du. Hortaz, errepikatu egin beharko da!

Iñaki Acedo: Bi diskoen artean, ez dago alde handirik, bide beretik jotzea erabaki baikenuen. Hala ere, bigarren diskoaren atzean elaborazio eta prestatze lan handiagoa dago. Lehenengoa, berriz, freskoagoa da.

EUSKAL HERRITIK NAHIZ ESTATU ESPAINOLETIK MUGITU ZARETE BATIK BAT. ZER-NOLAKO ESPERIENTZIA ATERA DUZUE? NON DA ZUEN MUSIKA ENTZUNAGOA?

Iñaki Calzada: Bai, egia da kilometro asko egin ditugula bai Euskal Herrian bai Estatuan ere. Jendearen erantzunari dagokionez, denetarik izan dugu. Hala ere, 'Mary&Jim' diskoa aurkezteko egin genituen kontzertuetan lortu genuen jende gehiagorengana iristea. Pozgarria da ikustea

jendeak zure lana ezagutu eta baloratzen duela.

Raul: Zaila da jendea kontzertuetara erakartzea, baina egia da bigarren diskoaren aurkezpenetan oso giro polita sortu zela zenbait kontzertutan.

HORTAZ, ITXARON BEHARRA DAGOEN ARREN, LASTER IZANGO DA THE BRONTËS TALDEAREN LAUGARREN LANA KALEAN, EZTA?

Iñaki Acedo: Plan nagusia abesti berriak grabatzea da. Azken bolada honetan buru-belarri jardun dugu lokalean, kantuak sortu eta sortu. Asmoa da Cadizera ahalik eta abesti gehien eramatea, han aukeraketa on bat egin ahal izateko. Dena ondo ateratzen bada, agian bi lan kaleratuko ditugu denbora laburrean. Horrek ilusio handia egiten digu, lau disko merkatuan ez da gutxi!

Raul: Esango nuke badela aldaketarik azken bi lan hauetan. Aurreko bi diskoak, 'Moontime' eta 'Mary&Jim', linealagoak izan dira. Oraingo honetan, ordea, abesti batetik besterako aldea nabariagoa delakoan nago. Dena den, pop indartsu, dinamikoa eta zuzena egiten jarraituko dugu. Horiek dira hasiera-hasieratik gure musikaren ezaugarri nagusiak. Modak joan, modak etorri geuk geureari eutsiko diogu.

Iñaki Calzada: Badugu kaleratuko ditugun bi disko horietako baten titulua: 'Ways to nowhere'. Disko horrekin ospatuko dugu, beraz, taldearen hamargarren urteurrena. Espero dezagun azkena ez izatea!



MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



egin bidaiak lasai / www.euskadi.net

europako osasun txartela

E-111 formularioa, Estatu Kideko edozein herritar aseguratzen duena aldi baterako egonaldietan jasotzen diren osasun-laguntzetan, Europako Osasun Txartelak ordezkatu du. 2004ko ekainaren 1etik aurrera, TSE-bezala ezaguna den txartela erabili beharko da.

Txartel horri esker Europar Batasuneko hiritar guztiek jaso ahal izango dute Batasuneko edozein herrialdetan osasun zerbitzua. Doako zerbitzua izango da hori, eta ordaindu behar baldin bada, ondoren egingo da hori.

Eskatzen duten pertsonen emango zaie TSE txartela eta turismoko bidaietan, edota ikasketa eta pentsioarengatik egiten diren lekualdaketetan erabili ahal izango da. Txartelean titularraren izena, NAN zenbakia eta atzetik duen Segurtasun Sozialeko Institutuaren zenbakia agertuko dira. Horri esker, gaur egun egiten diren tramiteak azkartuko dira. Izan ere, orain, derrigorrezkoa da gaixoa bere herrialdeko Segurtasun Sozialeko bulegoekin harremanetan jartzea.

Aipatzekoa da txartela banakakoa dela, eta titularrari osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea bermatzen dio. Zerbitzu horiek Europako

Batasuneko herrialdeetan, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Suitzan jaso ahal izango dira. Horretarako, zerbitzuak eta herrialdean igaroko den denbora hartuko dira kontuan.

Gainera, txartela on-line kudeatzeko aukera ere badago (www.euskadi.net). Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzak dituen bulegoetara ere jo daiteke.

araba

- Tomas Zumarraga Dohatsua 1, Vitoria-Gasteiz (Tel. 945 143390)
- Landako 10, Amurrio (Tel. 945 890033)
- P. Sancho Abarca 16, Biasteri (Tel. 945 600058)
- Viña Vieja 3, Laudio (Tel. 946 729072)

Eurpako Osasun Txartelaz gain, beste hainbat agiri ere beharrezkoak dira bidaiatzeko. Beharrezkoa denaren inguruko informazioa www.euskadi.net webgunean aurkituko duzu.

atzerriko osasun zerbitzua

Atzerrira joateko asmoa baldin badaukazu, komenigarria da alde zuretik jakitea zoazen herrialdeko berezko gaixotasunak zeintzuk diren, behar diren txertapenak garaiz egiteko.

Hartara, Osasun eta Kontsumoko Ministerioak EAEko hiru hiriburuetan dauzkan Atzerriko Osasun Zerbitzuko bulegoetara joan beharko duzu.

araba

- Santiago, 11 - 01004 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 289 433

munduko osasun-egoera

Hemen argibide interesgarriak aurki daitezke, bidaiak osasunez egin ditzazun. Adibidez, munduko osasun-egoerari buruzko argibideak, herrialdeak, nahi badituzu, jo www.euskadi.net webgunera.



nazioarteko bidaiariarentzako osasun-aholkuak

Aholkuak ikusteko jo webgunera; izan ere, azken urteotan, gero eta jende gehiago doa munduko bazter guztietara. Hori dela eta, herrialde tropikaletako berezko gaixotasunak, baita klima zein elikadura aldatzeagatik sorturiko gaixotasunak ere ugaltu egin dira.

estitxu breñas

errezeta

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

Legatz konfitatua txipiroi krema eta bere olioaz

OSAGAIK:

- Legatz gorenak azal eta guzti
- Lekak
- Azenarioak
- Txipiroiak
- Tipula
- Txipiroi tintak
- Arrain salda
- Olio lodia
- Gatza
- Perrexilaz konfitatutako olio
- Perrexil orritxoak apaintzeko

Prestaketa:

Txipiroi krema

- Pikatu kipula juliana eran, eta gorritu su motelean, ondo bigundu eta kolore apur bat hartu arte.
- Gehitu txipiroiak, aurrez ondo garbituta, eta tapa jarriaz erregosi ordu erdi batez.
- Txipiroi batzuk atera lapikotik eta tintak gehitu, aurrez ardo zuri apur batean urtuta, arrain salda gehitu eta pare bat minutuz irakin.
- Gatzez probatu eta tourmixelan pasatu lehenik, eta ondoren iragazkitik.
- Osorik gorde ditugun txipiroiak arotan zatitu.

Tinten olio

- Basoerdi bat oliotan 4 edo 5 tinta jarri sutan epeltzen (tintak gordinik kaltegarriak izan baitaitezke gure osasunerako), berriro

Barazkiak

- Leka eta azenarioa, juliana eran moztu, eta gatzez atondutako ur irakinetan egosi denbora gutxi, bigunegiak gelditu ez daitezten.
- Ur izoztuan hoztu lehenbailehen, eta paper zurgatzailean lehortu.


Plateraren antolaketa:

- Gatzez atundu legatza, eta azalaren aldetik olioaz igurtzitako zartagi bero batean gorritu. Olio epelarekin daukagun beste ontzi batera igaro (legatza bere erdiraino estali dezala), eta labera sartu konfitatzeko.
- Barazkiak gurinetan gorritu.
- Jarri barazkiak plateraren erdian, beraien gainean legatza azala gora begira, zabaldu txipiroi aro batzuk plateretik, eta txipiroi krema eta olioaz apaindu. Azkenik perrexil olio tanta eta orritxo batzuekin amaitu apaintzen.



Araba bixotzian

alfredo ibarra



Artium

euskarak
aurrera
egin dezan,

555
harpidedun

> **GEU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



18 euro
urte osoan

eman
zure izena:

945 22 21 53
geugaste@grn.es

GEUREKIN MENDIRA taldearen X. Urteurrenaren egitaraua

Apirilaren 8an:

19:30ean, Geurekin Mendira taldearen ARGAZKI IKUSKIZUNA, eta ondoren, GURE HIMALAYA MENDI PROIEKZIOA, ALBERTO INURRATEGIekin.

Ondotik, ardotxo, etorri diren ikusle guztientzat.

22:00etan, AFARIA

Izena eman beharko da, edo elkartera deituz, arratsalde (945222153) edo e-mail bat bidaliz, izen-abizen eta telefonoarekin.

Apirilaren 10ean:

'GASTEIZ-ARGANTZU MENDIZ MENDI'

1995ean egindako lehen irtenaldi ofizialaren errepikapena.

-Irteera: 09:00etan

-Ibilbidea: Lovaina plaza, Amendia, Zaldiaran, Busto, San Miguel, Argantz.

Txikiteoa Argantzuko kaleetan. Jatekoa eramatea gomendatzen da.

-Itzulera: 15:30ean Gasteizen, trenetxe etorrira.

Mendi-gaia

Maite ditut gailurrak

Argiak ez beste...

Al, egaztia banintz

Gaiaik-gain nenbilke.

Oi, udaberri goizez

Mendiaren gailurrak!...

Oi, aren ametsezko

Zorakortasuna!...

Zein ezkutuzko indarrez,

Zein atsedeen-egarriz

Zein gorago-yoranez

Nakarkak igana?

Lizardi



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

APIRILAK 21

OSTEGUNA

Oscar Wilde, Fidel
izan beharraz,
Ibaizabal 2000

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban
Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabai-
dagai izango den liburua:
Ur Apalategi, Gure gau-
zak S.A., Utriusque
Vasconiae 2004.
Maiatzaren 26a, osteguna

GEUREKIN MENDIRA

APIRILAREN 17AN AREETZAKO TRIKUHARRIAK (983 M)

(*arratsaldean itzultzekoa)

Arduraduna:
Bego-945266812

Irteera:
goizeko 9:00etan
Lovainan



GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VIII. IRTEERA APIRILAREN 24AN

AITZKORRI

Irteera: goizeko 8:30ean Lovainan. Kotxez
Informazioa: 945222153 (GEU elkarte - Josune)

KULTUR ERROTA

Geurekin Mendira taldearen 10. urteurrenaren
egitaraua dela-eta apirilean ez da kultur errotarik
izango (hurrengoa: maiatzaren 24an).

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta
zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

- Ordutegi guztiak: Leire. 656726701
- Arratsalde eta Gaez: Nerea. 658733934
- Asteburuak: Nagore. 945281124

IRAGARKITXOAK

Apartamentua alokatzen dut (altzariak
baditu) Federico Baraibar kalean; 45 m2 ditu honela
banatuak: logela bat, egongela, bainugela, sukalde
eta arropa zabaltzeko balkoi txikia. Gaseko
berokuntza du eta igogailua ere bai. Oso ondo
zaindua dago eta bista ederrak ditu.

TL: 653 714 556

Ikastolen Elkarateak uztailen burutuko diren
euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako
begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte
beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale
titulua izatea.

Izen emate epea: martxoak 11.

Non: Ikastolen Elkartean, 94 4354340
zenbakira deituta edo www.biekastola.net
webgunean.



GEU 
GASTEIZ EUSKALDUNA

> **GEU** ere



korrika-n




geu-ren korrika kilometroa txikieneen esku euskararen etorkizuna!


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

> **GEU**

tink




EuroNews




No Comment

Basque Country. 05.04.17



EUSKADIK BEHAR ZAITU






50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

**Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...**

**Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorrak ezagutzeko
50 mendi buelta.**

Apirilaren **24**tik aurrera
egunero ibilbide bat **DOAN BERRI**arekin

Laguntzaileak:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Euskaldunok behar dugun

berria



Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa 

